[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
523. zka.
XIII. urtea
2005eko apirilaren 1a




# Elgoibartarrak saltaka jarri zituen Korrikak

[ ERREPORTAJEA ] KORRIKA 14 ARGAZKITAN • [ KIROLA ] IÑIGO ARRIOLA

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94

## Iturgintza, gasa, berogailua, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com



# ZOZOAK BELEARI...



**MIKEL CORNEJO**

Berri zere ni, Ibane!

Zer da normaltasuna?

Orain dela bi aste hotzak akabatzen, aspaldiko elurte gogorrekin eta, bat batean, termometroak hogei gradu gora! Negutik urdara eta udatik negura. Normala al da?

Telebistako albistegiek zientzia fikziozko film laburren saioak dirudite: tsunamiak, birus mutanteak, klima aldaketa, espazioko sondak Jupiterreko ilargietan eta gosete pandemikoak hego hemisferioan. Ez da normala?!

Goizeko hiruretan lanetik etxeratu, t'erdietarako ohean, lauretarako lo eta goizekoz ortzietan, obrako langileen hotsak esnatu nau. Izorrai! Baina, normala omen da....

Normala al da nire egunerokoa zuretzat? Normala al da nire pentsakera edo nire normaltasuna? Eta munduaren norabidea?

Beharbada, normaltasuna beroki antzeko bat da, ez beroa mantendu eta hotzetik babesteko, eguneroko lasaitasun erosoa salbu mantentzeko baizik, desgrazietatik eta, tamalez, baita eguneroko honi erregaia ematen dioten gauza askotatik ere.

Ibane, zer da normaltasuna?

P.D.: Esate bateroko, Ibane, normala ote nire eskutitzak zuri azken unean ematea?

[ **«Normala al da nire pentsakera zuretzat?»** MIKEL ]

[ **«Milaka faktorek eragin dezakete normaltasunetik ateratzea»** IBAN ]

**IBAN URIZAR**

Alo Mikele!!

Normala? Normalizatu? Normaltasuna? Benetan pentsatzen al duzu normala zarela? Normal begiratzen al dizute kaletik? Normalizatua al dago zure hizkuntza? Normal begiratzen al duzu inguruko jendea? Edozeinek neurtu dezake hori, zure normaltasuna, aurtengo negutegia bezain aldakorra da zure normaltasuna, berea, gurea eta Aita zaindu kotxauarena den bezalaxe.

Milaka faktorek eragin dezakete normaltasun horretatik atera ahal izatea, baina denak ez dute eragin berdina izaten. Egoera normal batek plazerra eragiten du, plazer eliptikoa, mekanikoa ia. Kuriosoa da nola ohikoa ez den edozein egoerak normaltasun bat desiratzera bultzatzen gaituen. Bestalde, paradoxikoa da normala ez den edozein egoera egonkortasunaren poderioz normala izaten bukatzea, oporretara joaten garenean bezala; egun gehiegi direnean egunerokoa desiratzen dela. Normala anormala izatea desiratzen den bitartean, anormala normala izatera kondenatua dago.

...Baina egunak fotokopiatuko bagenitu, ikusiko genuke fotokopiaren fotokopia inoiz ez dela aurrekoa bezalakoa.

P.d: Ai Mikel zurea ez da normala, normala, normala, normala, normala, normala, normala, normala, ...ea askotan idazteagatik burutik kentzen dudan.

---

> EZ JARRAITU INOIZ EGINDAKO BIDEARI,
> BESTE BATZUK DAGOENEKO EGONAK DIREN LEKURA BAINO EZ ZAITU ERAMANGO

Alexander Graham Bell

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Elgoibarrek eta Mendarok *"Nik ere bai!"* KORRIKA 14ri

Euskal Herriko gainerako herrietan bezala, Elgoibarren eta Mendaron ere harrera beroa egin genion KORRIKA 14ri martxoaren 18ko eguerdi arratsalde partean.

Berotasun hori era askotan islatu zen. Alde batetik *karreran* bertan parte hartuta, batzuk txaloka eta beste batzuk saltaka.

Bestalde, aurreko asteetan euren laguntza eta babesa beste era askotan gauzatu zen, bai kilometroa erosita, bai komertzio eta enpresetan diru-laguntza emanda, bai "laguntzaile" txartela eginda, bai materiala erosita, bai ekitaldi kulturalak antolatuta, bai *korrika txikia* prestatuta, bai kaleetako trafikoa zainduta, bai propaganda ipinita...

Hau guztia egiteko behar-beharrezkoa izan da jende askoren laguntza, eta horiek guztiak banan-banan eskertzea ezinezkoa denez, hemendik txalotu nahi ditugu.

Horiek guztiek txaloak merezi badituzte ere, ondorengo hauek ere ez ditugu ahaztu nahi: Altzolakoak, emandako laguntzagatik eta bereziki Mendarokoak, euren gain hartu baitzuten herria girotzeko eta kilometroak saltzeko eta erosteko ardura (Inleike, udala, ikastola, jubilatuak, ospitala....).

Baina, ezin ahaztu aurtengo KORRIKAren leloak *"ni ere bai"* zioela, eta *karrera* bera bultza zedin eskatzeaz gain, konpromiso pertsonala eskatzen zuela.

Konpromiso eskaera horrek honela zioen: euskaldunek berba egin dezatela, ikasten dihardutenek ikasitakoa erabil dezatela eta, oraindik, pausu hori eman ez dutenak etor daitezela euskaltegira. Ez ahaztu, euskara denona eta denontzat!

**AEK EUSKALTEGIA**

## Hauteskunde Demokratikoak apirilaren 17an?

Maiatzean izatekoak ziren hauteskundeak aurreratu egin zituen Ibarretxek. Inolako arrazoirik ez zuen eman horretarako, nahiz eta egutegia oso justu gelditu. Posizio ahalik eta onenetan nahi zuen kokatu bere aukera, besteenak ahulduz. Kalkulu elektoral hutsetan hartutako erabaki honek badu jarraipena. Une honetan Ezker Abertzaleak ez du hauteskundeetan aurkezteko biderik. Batasunak ez dauka aurkezterik hauteskunde horietara. Zer egin du Ibarretxek horren aurrean? Bere desadostasuna azaldu baina ezer gehiagorik ez. Baina Ibarretxek oso aktiboa izaten daki hainbat momentutan. Hemen gogoratu behar dugu berak esandakoa: "ETAren aurrean tolerantzia 0". Hori oso garbi ikus daiteke azken urte hauetan berak hartutako erabakietan: zenbat manifestazio, zenbat kontzentrazio, zenbat adierazpen... ETA salatzeko. Eta ilegalizazio politikak ez al du merezi kontzentraziorik, manifestaziorik, adierazpenik... Ez al du EZER merezi? Non gelditzen dira Ibarretxerentzat euskaldunon eskubide politiko eta zibilak? Zer egin du Ibarretxek denen eskubideak bermatu nahi dituen Aukera Guztiak plataformak hauteskundeetan parte har dezan?

Badakigu PSOE eta PPk dutela Alderdien Legearen erantzukizuna bere atzean. Baina horren kontrako neurriak hemendik, Euskal Herritik, hartu behar dira eta horren kontra gaudela esaten dugunon artean. Bestela, berriro ere, kalkulu elektoral hutsak mugitzen duela ondorioztatu behar dugu, egoeraz baliatu boto gehiago ateratzeko, ilegalizazio politikak behar duen erantzuna jaso gabe utziz.

**P.M. C1919432J**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

DANOBAT GOITI ESTARTA Kondia

## TXALOAK

• Herritar batzuk Korrika Txikiaren antolatzaileak txalotu nahi dituzte: "Joan zen martxoaren 18an pasatu zen Korrika gure herritik, baina horren aurretik, etxeko txikienak izan ziren protagonista. Ikastetxe desberdinetako haurrek Korrika Txikia egin zuten herriko kaleetan zehar. Ume mordoak hartu zuen parte, eta sekulako giro ona jarri zuten".



## KEXAK

• Urasandiko bizilagun batek esan digunez, auzoko harategi aurrean, auto mordoa espaloi gainean aparkatuta egoten dira: "Urasandin gertatzen dena lotsagarria da. Auto mordoa egoten dira gaizki aparkatuta, harategi aurrean esate baterako, espaloi gainean uzten du jendeak autoa eta, ondorioz, bide horretan bi auto ezin izaten dira gurutzatu. Batek itxoin egin behar izaten du, eta deskuidoan, gaizki aparkatuta dagoen auto bat joz gero, errua jo duenarena da. Gaizki aparkatuta dagoenari egindakoa ordaindu egin behar zaio, erruduna bera denean. Arazo hau konpontzeko zerbait egin beharra dago".

• Herritar batek esan digunez, ostegun batean Xixilion parkean aparkatzeagatik multa jarri diote: "Ostegun goiz batean Xixilion parkean aparkatu nuelako, udaltzainek multa jarri zidaten, azoka egiteko gunea zela adieraziz. Nik dakidala behintzat, hor ez da azokarik egiten, eta inori ez nion trabarik egin. Aspalditik dabil Udala azoka Xixilionera eraman nahirik, baina momentuz, inork ez du bere salmenta postua han jartzen, beraz, ez litzateke bertan aparkatzeko arazorik egon behar. Herri honetan dagoen aparkamentu arazoa kontuan izanik, lotsagarria iruditzen zait".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 23an hil zen
***Maria Asunción Rementeria Beristain***en
ahizpak, ilobek, bilobak eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## ESKERTZA

2005eko martxoaren 28an hil zen
***Antonio Unzueta Iriondo "Moskote"***ren
emazteak, seme-alabek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# URRUZUNOREN luma

## Agurea eta opera

Hiriko negozio eta finantza zentruan, kalerik jendetsuenaren ertzean eserita pasatzen zuen eguna agure hile zuriak. Eskalea zirudien baina ez zuen dirurik eskatzen, kotxeko bateria zahar bati loturik zebilen irratikasete bat martxan jarri eta traste hark ahal zuen bolumen altuenean hedatzen zituen opera doinuak bere inguruan. Behin eta berriro, tenore eta sopranoen ahots mardulek oinezkoen nahitaezko bakarrizketak bustitzen zituzten, oharkabean opera pertsona haien pentsamenduen oinarrizko mintz harilkatu eta armoniotsua bilakatuz, margolari baten lientzoa bailitzan. Hor ziren egunero agurea eta opera, baina gainontzekoen egunerokotasunak irentsirik, ikustezin bilakatuak ziren jadanik ibiltari guztientzat.

Egun batez, inork ezertxo ere jakin gabe, agurea ez zen agertu. Ez agurerik, ezta operarik ere. Halako hustasun bat somatu zuen bertatik igaro ohi zen jendeak, ezen bulego eta saltoki guztietan agureaz hitz egiten hasi zirela, zer gertatu zitzaion asmatu nahiez. Ageri ez zenean utzi zion agureak ikustezin izateari. Izan ere, zerbait falta zaigunean konturatzen gara hor zegoela.

*Iñigo Otaño*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### BENANTZIO OTAEGI

ERRETOREA

• **Zein pekatu ez zenuke sekula barkatuko?**
Zikoitza izatea, baina kristauak dena barkatu behar du.

• **Norekin konfesatzen zara?**
Urtean bi aldiz izaten ditugu otoitz bilerak Arantzazun, eta han izaten dugu gure gauzak kontatzeko aukera.

• **Egunean zenbat aldiz egiten duzu otoitz?**
Nire kabuz, beste norbait horrekin elkartzeko oilarrak kantatu eta txoria kantuan hasi bitartean egiten dut, isiltasunean.

• **Hil eta gero?**
Bibliak hiri argitsu bat imaginatzen du, erreka batekin, minik gabe, denak alai. Jerusalen berria deitzen dio. Hori pentsatu nahi dut, baina erantzuna zaila da.

• **Aita Santuak erreleboa behar al du?**
Baietz uste dut, baina bere erabakia errespetatu behar da.

• **Noizko emakumeak apaiz?**
Apaizak falta direnean emakumeek betetzen dute lan hori. Igandetako kristauen bilera ez galtzeko beharrezkoa da.

• **Berriro jaioko bazina, berriz apaiz?**
Bai, nire bokazioa, lanbidea eta afizioa da. Betetzen nau.

• **Zein mirari ikustea gustatuko litzaizuke?**
San Pablok zioen bezala, "judutarrak mirari eske dabiltza, greziarrak jakinduria bila, ni Jesukristorekin geratzen naiz

## komikia



# [AKORDATZEN NAIZ]



## JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Kotxia»

Nik kotxeko karneta 40 urtekin etara naban. Gaur egungo gaztiak 18 urte egiñ, eta lehenengo gauzia karneta etaratzia nahi izaten dabe.

Gaur egunian ere badaude gauza inportantiaguak, baiña gaurko gaztientzat karneta etara eta kotxia edukitze hori demasa da.

Nik, berriz, ez naban uste sekula kotxia edukiko nabanik. Andriak animau zidan. Nik orduan ya bi seme-alaba edukiko nittuan. Lehenenguan, teorikua suspendittu naban. Erretza zalakuan jun nitzan, baiña konturau nitzan ikasi egin bihar zala.

Auto-eskolara jutia etxatan gustatzen, eta etxian ikasten naban. Bakar-bakarrikan kuartuan sartu, eta hantxe ikasten naban. Bigarrenian, aprobau egin naban. Praktikiak ez zidan bildurrik ematen, lehenago ere ibilitta naguan eta.

Nere andrian pariente batek auto-eskolia zakan Azkoittin, eta hara juten giñanian, askotan kotxe bat libre edukitzen zaban eta harekin praktikatzen naban. Praktikia erretz etara naban.

Gero kotxia erosi naban. Ez nakan kotxia erosteko asmorik, baiña andriak esaten zidan erosteko. Engañau egin zidan, hasieran karneta etaratzeko bakarrik esaten zidan, eta gero endredau egin ninddun erosteko. Andrak beste mentalidade bat dauke. Halaxe erosi naban bigarren eskuko kotxe bat.

# [GURE BERBAK]

## Koloriak

Koloriak askotan erabiltzen dittugu euskeraz esapidiak osatuz gure ideien berri emateko. Gaurkuan esapide horretako batzuk ekarriko dittugu hona:

*Beltza pasau jatan atzo!*
*Beltza dok, ba!*
*Beltzak ikusi (= gorrixak ikusi)*
*Kale gorrixan geratu nok (= lanik be)*
*Narru gorririk egon*
*Kolorerik ez dago gaurko pelota partiduan!*
*Berdekerixak esan (= lizunkerixak)*
*Astegun buruzurixa*
*Pertsona zurixa izan (= alperra)*
*Ez egidak zurittu hire jokabidia (= justifikatu)*

*Jesus Mari Makazaga*



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 17an hil zen
*Victoria Iriondo Totorika*ren
seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## ESKERTZA

2005eko martxoaren 18an hil zen
*Ines Gabilondo Unamunzaga*ren
ilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



KORRIKA 14

# NI ERE BAI!

*Martxoaren 18an pasatu zen Korrika 14 Elgoibartik. Makina bat herritarrek egin zuen bat "Ni ere bai" lemapean euskara aldarrikatuz Euskal Herria alderik alde zeharkatu duen egitasmoarekin. Bi urteren buruan izango da berriz euskara sustatu asmoz antxitxika egiteko aukera. Hona hemen aurten saltaka egin dutenen erretratuak.*

Argazkiak: **AZKUE**




Morkaiko M.E.



Haritz E.D.T.



Ezker Batua



IMH, Haur Eskola, Herri Eskola eta B.H. Institutua



Elgoibar Ikastola



Txankakua

ni ere bai!

ORREAGA — Elgoibar — BILBO



Euskadiko Kutxa



Euskara Saila




Errotatxo




Einbiou, Kimetz eta Etxerat




Gazte Asanblada eta Zazpiki Irratia




Elgoibarko Izarra




AEK Euskaltegia



Sanlo E.T.



Etxepe



Haizea



LAB



Altzola auzoa



Mendaroko AEK



Korrika Txikia

## JAIOTAKOAK



**Jone Navarro Rodriguez**
[ Martxoak 2 ]
Francisco eta Margarita



**Mikel Lahoz Iribarren**
[ Martxoak 4 ]
Carlos eta Gema



**Markel Amutxastegi Yarza**
[ Martxoak 13 ]
Iker eta Leire



**Jon Dominguez Cid**
[ Martxoak 15 ]
Martin eta Maitane



**Beñat zabaleta Badiola**
[ Martxoak 23 ]
Jose Maria eta Itziar



**Unax Kortabitarte Osoro**
[ Martxoak 26 ]
Luis eta Nerea

## HILDAKOAK

Jose Mari Agirregomezkorta • [ 76 urte ] • Martxoak 2
Jesus Sanchez Palomo •[ 65 urte ] • Martxoak 2
Isabel Orbea Arrizabalaga • Martxoak 3
Maria-Laura Etxabe • [ 74 urte ] • Martxoak 4
Angel Ajubita • [ 85 urte ] • Martxoak 5
Ramon Maiztegi • [ 83 urte ] • Martxoak 7
Jose Oteiza Agirregomezkorta • Martxoak 10
Victoria Iriondo Totorika • [ 90 urte ] • Martxoak 17
Ines Gabilondo Unamunzaga • Martxoak 18
Julio Antón Muñoz • Martxoak 21
Benita Agirre Larrañaga • Martxoak 23
Maria Asuncion Rementeria Beristain • Martxoak 23
Felisa Muguruza • Martxoak 28
Antonio Unzueta Iriondo • Martxoak 28

## EZKONTZAK

Igor Martinez Alberdi eta Carmen Arrillaga Santolaya
[ Martxoak 12 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.


# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

## [ PROTAGONISTA ]



### AlbertoOrtueta

Korta Sarien V. Edizioak sei enpresari euskaldunen ibilbideak saritu ditu, eta horietako bat Alberto Ortueta elgoibartarra izan da. Alberto Ortueta AFMko (Makina Erreminta Ekoizleen Elkartea) zuzendari orokorra, IMHko museoko eta Gestio Eskolako lehendakaria da. 22 urterekin hasi zuen bere ibilbide profesionala, Construcciones Mecanicas Alkartu enpresako gerente moduan. Honetaz gain, T. Izarra eta Estampaciones Rubi enpresetako zuzendari gerentea ere izan da. 65 urteko elgoibartar honek ibilbide luzea izan du industria munduan. Zorionak!

## [ NOTIZIA ]

# Hostelaritzarako zarata eta ordutegien gaineko araudia onartu du Udalak

Udal Plenoak hostalaritzako establezimenduen zarata maila eta ordutegia neurtzeko araudia onartu zuen EAJ eta EAren aldeko botoekin. Bestalde, tabernetako terrazen gaineko araudia ere onartu zuten. PSE-EE, PP eta Ezker Batua abstentzioaren alde azaldu ziren. Ovidio Campello (PSE-EE) eta Iñigo Arkauzek (PP) adierazi zutenez, "herritarrentzako oso garrantzitsua da araudi hau, eta ez dugu bertan parte hartzeko aukerarik izan, ezta araudia ikertzeko ere".

### 3.000 euroko isuna eta itxiera

Legea betetzen ez duten establezimenduek 3.000 eurora arteko isunak jaso ditzakete, eta Udalak establezimendua bi



hilabetez ixteko agindua eman dezake. Herriko hostalaritza establezimenduek zarata neurtuko duen aparailu bat jarri beharko dute, eta modu egokian isolatuta egon beharko dira. Lege honen helburu nagusia, herriko bizilagunen bizitza kalitatea hobetzea da.

## [ ZENBAKIA ]

**138**

Sprilur Elkarteak (Lurzoru eta Eraikuntza Industrialerako Sustapen Elkartea) 138 milioi euro inbertituko ditu Gipuzkoan, industrigune berriak eraikitzeko. 8 proiektu berri jarriko dituzte martxan, eta horien artean, bi Elgoibar eta Mendaron eraikiko dira. Guztira 675.000m² eraikiko dira, 250 enpresa eta 8.000 langile bilduko ditu.

## asteko [ ARGAZKIA ]



"Udaberria odol berria" dio esaera zaharrak, eta ez dauka arrazoi gutxi. Arropak gainetik kendu, eta gustura egoten gara denok eguzkipean. Iritsi zaigu aurten ere udaberria: zuhaitzak loratu dira, egunak luzeagoak eta alaitasuna nabari da kalean. Dagoeneko udako ordutegia jarri digute, energia aurrezteko omen da. Ez dakigu zerbait lortuko den edo ez, baina guri eguna nabarmen luzatu digute, eta hori eskertzekoa da. Orain, udako tenporen zain geratuko gara, eta ea eguraldi ona egiten duen.

# Hotela eta 76 aparkaleku egingo dira Madalako zonaldean



Madala 2 zonaldeko etxe berrietan hotel bat eta lurrazpiko 76 aparkaleku egiteko ikerketa-proiektua onartu du Udalak. Honela, etxe berrien bloke bateko azken bi solairuak hostalaritzarako erabiliko dira, eta azpian etxebizitzak egingo dira. Hotelak eta etxebizitzak sarrera desberdinak izango dituzte.

### Berrikuntza gehiago

Bi berrikuntza hauetaz gain, etxe berrietatik Karkizanoko Babes Ofizialeko Etxeetara joango den oinezkoentzako bidea egingo da. Era honetan, trenbidea gaindituko da eta Karkizanoko ingurunea herritik gertuago egongo da. Madala 2 sektorean promozio askeko 141 etxebizitza eta Babes Ofizialeko 16 eraikiko dira.

Honetaz guztiaz gain, gazteentzako eta hirugarren adinekoentzako guneak eraikitzeko asmoa dago. Bestalde, Madalako elizako ingurunean berrikuntzak egingo dira.

Aldaketa hauen guztien helburu nagusia herriko zentroa ingurune honekin lotzea da, baita herriak daukan aparkaleku arazoari irtenbidea ematea eta hostalaritza zerbitzua eskaintzea ere.

## Arrizabal Elkarteak kaleak garbitzeko makina isila kaleratu du



Elgoibarko Arrizabal Elkarteak kaleak garbitzeko makina isila kaleratu du. Italiatik ekarrita, Bilboko Udalari saldu dio. Makina honek 70 dezibeliotatik 35era jaisten du zarata, bizikleta batek besteko zarata ateratzen du eta, gainera, askoz gutxiago kutsatzen du. Estatu mailan hauxe izango da mota honetako lehenengo makina. Golf zelaietako ibilgailuen antzerakoa da, eta alboetan "zarata eta kutsadurari stop" lema irakur daiteke. Makina hauetariko bakoitzak 57.096 euro balio ditu.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Kiribilka programa apirilaren 8an hasiko da

Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin, Kiribilka programa jarriko du martxan berriz, datorren apirilaren 8an. Kiribilka 2-6 urte bitarteko haurrei eta hauen guraso edo zaintzaileei zuzenduriko egitasmoa da. Kiribil barraskiloarekin eta begiraleekin batera, euskarazko kanta, jolas, dantza, ipuin eta antzerakoen bidez euskaraz eta euskal giroan ondo pasatzeko sortutako programa da. Apiriletik urrira arte luzatuko da egitasmoa. Lehenengo zita, datorren ostiralean, arratsaldeko 17:30ean Plaza Handian.

### Euskararen transmisioa

Udalak haurra izan berri duten gurasoei zuzenduriko euskararen transmisio kanpaina jarri du martxan. Aurtengoan bi berrikuntza sartu dituzte: Kontu Txikiak materialaren banaketa eta Elgoibarko Izarrak honen inguruan antolaturiko ikastaroa. Interesatuek 943 74 16 26 telefonoan jaso dezakete informazio gehiago.

### Lourdesera irteera

Maiatzaren 20tik 23ra Lourdesera erromesaldia egingo da gaixoekin. Interesatuek Pol-Pol tabernan eman dezakete izena apirilaren 9a baino lehen. Informazio gehiago: Pakita Perez, 943 74 28 77.

### Gutxitu fisikoak

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak 2005erako "Minusbaliotasun fisiko edo sensorial bat duten pertsonentzako oporraldien programa" antolatu du. Informazio gehiago udaletxeko Gizarte Ongizate Sailean lortu daiteke. Eskaerak aurkezteko epea datorren

Auzitegi Gorenak Aukera Guztiak hautesle elkartea baliogabetu du.

# Aukera Guztiak-ek apirilaren 17ko Hauteskundeetan egoteko eskubidea izan behar al du?

**ANDER ALKORTA**
Sukalde diseinatzailea
32 urte



“Dudarik gabe! Demokrazia batean alderdi guztiek eduki behar dute hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Erabaki politikoa izan da, eta gainera ez dago frogarik.”

**JONATAN MARTIN**
Ikaslea
19 urte



“Bai. Nire ustez gainontzeko alderdiek dituzten eskubide berberak izan beharko lituzkete. Pentsamolde desberdina dutelako ezin dira ilegalizatu.”

**MIREN GOITIA**
Erizaina
43 urte



“Bai, hori da demokrazia. Euskal Herriko hauteskundeak izanik, ez dut ulertzen zergatik hartu den erabaki hau Madrilen. Aukera guztiak ordezkatu behar dira.”

**FELI LORENZO**
Etxekoandrea
38 urte



“Baietz uste dut. Demokrazian gaude, eta iritzi guztiak errespetatu behar dira. Hauteskundeetan aurkezteko aukera talde guztiek eduki beharko lukete.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Lehen baino haur lodi gehiago ikusten al duzu?

**BAI %34**

“Bai. Gero eta kontu gutxiago dute gurasoek haurren elikadurarekin. Nik eskertu egiten dut kalean haur bat ogitartekoarekin ikusten dudanean eta ez palmera edo bolleriarekin.”

**EZ %66**

“Ez al da izango gaurko gizartean estetika kontuan estereotipoa aldatzen ari dela eta itxurari garrantzi gehiegi ematen diogula? Loditasuna neurtzeko parametroak aldatu dira.”

Datorren asterako.... Aste Santuan 105 lagun hil dira istripuz Estatuan. Erdiak ez zuen jarrita gerrikoa.

**Zuk ba al daukazu gerrikoa jartzeko ohiturarik?**

Bidali SMS bat:
**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA
**7744** zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.




Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# Nerea Roteta eta Lohitzune Perez “Emakumeak industriara erakartzen” lehiaketako irabazle





Debegesak antolatuta, “Emakumeak industriara erakartzen” idaz lehiaketan hartu dute parte Debabarrena eskualdeko ikastetxeetako DBH 3. mailako ikasleek. Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze eta Mutrikuko sei ikastetxek hartu dute parte.

Lehiaketako Irabazle nagusia Soraluzeko ikasle bat izan den arren, beste bost ikasleren lanak ere saritu dira, eta horien artean bi elgoibarko ikastetxeetakoak izan dira, hau da, Pilar Ikastetxeko Lohitzune Perez eta Elgoibarko BH Institutuko Nerea Roteta. Bi ikasle hauek, martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean jaso zute saria.

### Helburua

Debegesak antolatutako kanpaina honek bi helburu ditu: batetik, ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakumeen presentzia handiagotzea, bide batez, emakumeen artean dagoen langabezia tasa altua jaisteko, eta bestalde, industria arloan dagoen langile faltari irtenbide bat ematea. Helburu hauek lortu ahal izateko, Debegesak ekintza desberdinak antolatzen ditu urtean zehar, besteak beste, ate irekiak, bilkurak...

## [ IKAS ZERRRRRRR? ]

### Asisko Urmeneta Elgoibarko BH Institutoan

Asisko Urmeneta marrazkigile eta idazle nafarrak hitzaldia eskaini zuen joan zen martxoaren 23an, Elgoibarko BH Institutoko bigarren zikloko ikasleentzat.

Hizkuntza informalean euskaraz hitz egiteko gazteek behar dituzten lokuzio, espresio eta esamoldeei buruz jardun zuen luze eta zabal ordu betez. Ikasleek gustura entzun zituzten nafarrak esandakoak, eta txalo zaparrada batez eskertu zioten emandako hitzaldia.



## [ IRTEERAK ]



### Ikastolakoak Pagoetan

Elgoibar Ikastolako 6. mailako ikasleak Pagoetan izan ziren. Klasean landutako hainbat gai gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, besteak beste, ekosistema bat zer den, basoko bizidunak eta erlazioak, elika kateak eta sareak, basoko bizidunak elikaduraren arabera sailkatzen... Argazkia Sagastizabal baserrian atera zuten.



### Elgoibar BH Institutuko ikasleak Lleidan

BH Institutuko ikasleek Lleidako Enpresa Simulatuen 6. azokan hartu dute parte, Agroturist enpresarekin. Aisialdia, heziketa eta turismoa konbinatzen dituen nekazalturismo enpresa da. Bertan Euskadi, Espainia, Italia, Frantzia eta Austriatik etorritako 65 ikastetxek hartu zuten parte. Balorazioa oso positiboa egin dute, helburu guztiak bete baitzituzten.

# GAZTIA NAIZ

## Look aldaketa

### Julio Leaño




Julio Leaño (15 urte) bolibiarra da, baina duela bi urte bizi da Elgoibarren. Ama ileapaintzailea du eta normalean ilea etxean berak mozten diola aipatu digu.
Hortaz, askok. nola iritsi den atal honetako protagonista izatera galde egingo duzue, ezta? Bada, erreza da, apostu bat medio izan dela aitortu digu. “Institutuko irakasle batek xaxatu gintuen eta bi lagunekin apostua egin nuen atal honetan baietz agertu”. Bistakoa da apostua irabazi duela. Saria: bi lagunak bere menpe izango ditu egun oso batez, berak nahi duen guztia egin beharko dutelarik, esklabuak bailiran. Zer nolako apostua, ezta?.




## prozesua... Maria Urizar ileapaindegian



Juliok aurpegi zabala duela aipatu digu Maria Urizarrek. Alboetan ilea makinilaz moztuz eta garezur gainean luzeagoa lagaz, estilizatu nahi izan du.



Mutil askok eskatzen diote mozketa hau eta berak ere proposatzen die. Praktikoa eta erosoa da bezeroentzat eta bata ileapaintzaileentzat ere.



Ordulaurden eskasean burutu du lana Mariak. Prozesuan zalantzak erakutsi arren, gustura etxeratu da Julio. Neskalagunaren oniritzia falta zaio orain.

Zure itxura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: **barren@elgoibarkoizarra.com**



# biluzik

sexologia txokoa

Eli Moreno [Sexologoa]

## Gurasoak eta sexualitatea

### *Gurasoek beren seme alabekin sexualitateaz hitz egin beharko lukete?*

• **Betiko galdera. Noiz eta nola komeni da hitz egitea gurasoek sexuaz?**

Seme-alabak nerabezaroan daudenean hasten gara gurasoak benetan gai hauetaz pentsatzen. Batetik, oso umeak direla uste dugu, oraindik ez zaiela gai hauetaz hitz egin behar, baina, bestetik, Nahi Gabeko Haurdunaldi baten, GIB-aren edo TSG baten arriskua hor dagoela dakigu, eta honek sekulako antsietatea sortzen digu. Beraz, gai honi heldu behar diogula erabaki eta hor hasten dira arazoak: gure seme-alabak ez du nahi gurekin hitz egiterik, dena dakiela esaten digu, gu batzuetan oso inkomodo sentitzen gara... Ondorioz gure helburuak ez dira betetzen.

• **Zer egin, beraz?**

Sexu heziketa jaiotzen garenetik hasten da, gure seme-alabei besteekiko errespetoa izaten eta konpartitzen erakusten diegunean, afektoa ematen erakusten diegunean, nahi duena eskatzen eta nahi ez duena adierazten erakusten diogunean... sexu heziketa egiten ari gara. Baina sexualitatearekin zerikusia duten beste gai askok tabu izaten jarraitzen dute eta oso deseroso sentitzen garela hitz egiten, baita gure seme-alabak ere. Horrez gain, batzuetan ez dugu jakiten noraino kontatu behar diegun, pentsatzen baitugu gazteegiak direla, edo preserbatiboa bat emateak koito harremanak mantentzera bultzatuko dituela... Halere, errealitateak alderantzizkoa erakusten digu, orokorrean berandu heltzen garela, gehienetan gure seme-alabak gazteegiak ikusten ditugulako edozein sexu harreman mantentzeko. Preserbatiboak ematea, esaterako, gertatu daitekeen zerbaiti aurrea hartzea da, gaia naturalizatzea eta gure seme-alabak erresponsableak egitea.

gazte informazioa

### JARDUNALDIAK

**"Gazteok eta etxebizitza"**

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatua, apirilaren 18tik 22ra bitartean izango dira Gasteizen. Besteak beste dokumentalak, arte erakustea eta mahainguruak izango dira: "Etxebizitza eskubidea eta euskal errealitatea" eta "Esperientzia berritzaile eta alternatiboak". Informazioa: 945 220 601

### LANA

**Gazteria, hezkuntza eta enplegu arduradun bat Zarauzkoudalerako**

Zarauzko Udalak Gazteria, Hezkuntza eta enplegu arduraduna behar du. Baldintzak: diplomatura edo unibertsitateko erdi-mailako titulua eta 4. hizkuntza-eskakizuna, 2004-10-27tik derrigorrezkoa. Oposaketa.lehiaketa izango da. Epea: apirilak 18. Informazioa: zarautz@udal.gipuzkoa.net

### LEHIAKETAK

**Kutxa Irungo Hiria**

Poesia eta eleberria sailak daude. Poesiari dagokionean, gutxienez 800 bertso bidali behar dira. Saria: Gaztelua eta 9.270 euro. Eleberriak gutxienez 125 orri izan behar ditu. Saria: Gaztelua eta 13.390 euro. Epea: ekainak 11. Informazioa: 943 000 850

**Edro de Atarrabia literatur lehiaketa**

Euskarazko edo gaztelerazko iupin laburren lehiaketa, Atarrabiako Udalak antolatua.Ipuinen gaia egileak aukeratuko du eta ipuinek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. 20.000 karaktereko luzera izango dute, lerrouneak barne. 2.500,00 euroko saria emango da modalitate bakoitzean. Honez gain, epaimahaiak 600 euroko akzesita eman dezake, sariren bat eman gabe geratzen bada. Epea: irailak 16. Informazioa: 948 332659 eta www.villava.es

**Argazkigintzako "Desnivel" lehiaketa**

EdicionesDesnivel-ek antolatua. Bakoitzak gehienez ere 10 irudi bidali ditzake. Saria: 1.500 euro. Epea: uztailak 15. Informazioa: 902 902 156 eta www.desnivel.es

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461

Asteartetik-ostiralera: 16:30-19:30

# EZAGUNAK

**BARREN** astekariak aurkeztutako egitasmoa.

Gonbidatuak

## «VAYA SEMANITA»
saioko kideak aurrez aurre!



Gorka Otxoa



Nerea Garmendia



Iñigo Agirre

**Apirilak 7, eguena**
**Arratsaldeko 19:30ean**
Musika Eskolako Auditorioan

lagun

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko
Udala

Foru
Aldundia

ANTZERKIA

# Antzerkia izango da asteburuko kultur jardueraren protagonista



Aste Santuko oporretatik bueltan, bi antzezlanetaz gozatzeko aukera izango da asteburuan Herriko Antzokiko oholtza gainean. Kultura Sailak antolatuta, bi konpainia entzutetsuren lana gertutik jarraitzeko aukera izango da. Batetik, gaur, hilak 1, Triclinium Teatro taldeak Juan Copeteren "Soliloquio de grillos" lana antzeztuko du Herriko Antzokikoan (22:15). Gerra Zibileko egiazko gertakari batean oinarritzen da testua. Hildako orori zor zaion justizia eta duintasuna dira gai nagusiak, batez ere bizirik jarraitzen dugunok zor diegun errespetutik begiratuta. Oholtza gainean hiru pertsonaia ageri zaizkigu izenik gabeko hilobi batetik euren bizitzaren errekonozimendua eskatuz. Triclinium konpainia Meridako (Extremadura) hiru emakumek osatzen dute eta Esteve Ferrerren zuzendaritzapean arituko dira.

Bestalde, domekan, apirilaren 3an, haurrei zuzenduriko "Galtzerdia" izeneko ikuskizuna ekarriko du Bergarako Taun Taun Teatroa antzerki konpainiak. Saioa 16:30ean hasiko da.

## Fernando García Rubiáren pintura erakusketa

Gaurtik (apirilak 1) hasi eta hilaren 17ra bitartean Fernando García Rubiá margolariaren pintura erakusketa ikusi ahal izango da Kultur Etxeko erakusketa gelan. Salamancan jaio zen 1957an, baina Eibarren (1963-1979) eta Elgoibarren (1979-1981) urte batzuk pasa ondoren, Ermuan bizi da. Ermuko Mugartea Elkarteko eta Eibarko Artisten Elkarteko partaide ere bada. Autodidakta izanik, Aureliano Berrueta, Regoyos, Zuloaga eta beste hainbaten miresle da, naturalismo eta inpresionismo korronte artistikoen jarraitzailea, alegia. Bere zaletasunen artean, hainbat herritan antolatzen diren aire libreko pintura lehiaketetan parte hartzea dago.





**ESKERTZA**

2005eko martxoaren 21ean hil zen

***Julio Antón Muñoz*en**

emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





***Iñaki Lariz Iriondo***
2002ko apirilak 5

**III. URTEURRENA**

*"Argi bat itzali da*
*hemen lurrean*
*berri bat piztu da*
*han zeru ederrean*
*beti jarraituko duzu*
*gure bihotzean".*



## IÑIGO ARRIOLA S.D. EIBAR TALDEKO FUTBOLARI OHIA

# «Bere txikitasunean talde handia da Eibar»







*Iñigo Arriolak (37 urte) 9 urtez defendatu zituen S.D. Eibar taldearen koloreak. Duela 5 urte laga zuen talde armeroa eta futbola, baina gertutik jarraitzen du eibartarraren ibilbidea. Burutzen ari diren denboraldi bikainaz berba egin dugu.*

**Aurten bai, lortuko al du Eibarrek lehen mailara igotzea?**

Jendea sinezkor dago eta azkenean zerbait pasako dela uste du, baina nik lortuko duela uste dot, igotzeko kandidato serioa da. Eta igotzerik lortu ezean ez da ezer pasatzen, dana irabazteko baitauka, gozatzeko unea da. Bostgarren geratuta ere azken partidaren ostean merezitako txalo zaparrada jasoko dute eta kitto!

**Jokatzeko modua aldatu da?**

Hori mito bat dela uste dut, Eibarrek ostikadaka jokatzen duela, alegia. Futbolista onekin erraza da jokatzea eta Eibarren jokalari onak daude eta egon dira. Egun errespetu handiarekin datoz taldeak Eibarrera. Etxetik kanpo, berriz, inoiz baino hobeto ari dira zelai erditik aurrera jokalari oso bizkorrak baititu.

**Zein da Eibarren sekretua?**

Bere txikitasunean talde handia da Eibar. Beste talde batzuetan aurki ezin daitezkeen baloreak ditu. Talde giroa esaterako, indibidualismoetatik haratago eta umiltasuna ikur hartuz, denak helburu beraren atzetik aritzea, alegia. Eibarrera iritsi orduko erakusten dizute hankak lurrean izaten eta gauzak ondo eginda ere lanak izango direla maila mantentzeko. Bagenekien partiduak galduko genituela, baina kirol unerik txarrenetan ere gure arteko giroa aparta zen. Entrenamenduen ostean ia taldekide guztiak batzen ginen zerbeza batzuk hartzeko. Beste taldeetatik zetozen futbolariek koadrila giro hau goraipatzen zuten. Beteranoenak (Nire garaian Garmendia, Luluaga...) beti saiatzen dira filosofia hori transmititzen.

**Talde izaera berezi hori galtzeko arriskuan al dago?**

Baliteke. Lehen ingurukoak ginen denok. Yugoslabiar bat taldera etorri zenean, guretzat extralurtar bat modukoa zela akordatzen naiz. Gero bertakotu, eta sagardotegietara joateko desiatzen egoten zen. Orain Eibarren bizi dira jokalariak, baina ez dira bertakoak (uruguaiarrak, galiziarrak, kanariarrak, valentziarrak...). Normaltzat ikusten da hurruneko jokalariak etortzea, baina ez da horren erraza lehen zegoen talde giroa mantentzea. Karmona, Gaizka Garitano eta antzerakoak saiatuko dira mantentzen, baina futbola asko aldatu da epe laburrean eta jokalariek beste gauza asko dituzte buruan.

**Oroitzapen onak izango dituzu, ezta?**

Bai, maila mantentzea izaten zen gure helburua, eta askotan kostata izan bazen ere lortzen genuen. Ez dakit Real Madrilekoek nola ospatuko dituzten Europako Kopak, baina gure ospakizunak demasekoak izaten ziren.

> **«Beste taldeek ez dituzten baloreak aurki daitezke Eibarren»**

DUATLOIA

# Amaia Revertek eta Ainhoa Lendinezek Barakaldoko Duatloian parte hartu zuten





Amaia Revert eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrek Barakaldoko Duatloian parte hartu zuten martxoaren 13an. Iazko denboraldi amaieratik Debabarrena taldeko kideak dira eta Barakaldokoa konpetizioan egin dute estreinaldia. 5 kilometro korrika, 20 bizikletan eta 2,5 korrika egin ostean, 12. postuan sailkatu zen Ainhoa eta 15. postuan Amaia. Oso gustora geratu ziren egindako lanarekin eta gogor entrenatzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu digute.

Aurten Mariaje Sanchez sartu da taldean. Bilbotarra da, baina bi urte daramatza Elgoibarren. Duatloi denboraldia martxoaren 6an hasi zen Basaurin eta elgoibartarrek duatloi motzetan, "sprint" deiturikoetan aritzeko asmoa dute aurten txapelketari neurria hartzen joateko. Gernikako Duatloian izango dute indarrak neurtzeko hurrengo aukera apirilaren 16an. Uda partean Amaiak Lekeitioko Triatloia egiteko gogoa duela azaldu digu eta Ainhoak, berriz, Barakaldokoa.

## Gipuzkoako Bolo Txapelketa asteburuan hasiko da

Eibarko Asola Berri bolatokian hasiko da Gipuzkoako XXXVI. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa zapatuan, apirilaren 2an, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Lehen sailkatuak 65 euro jasoko ditu, 50 bigarrenak eta 35 hirugarrenak. Hamar saio izango ditu txapelketak eta Eibar, Elgeta, Soraluze, Deba, Azkoitia eta Elgoibarko bolatokietan jokatuko dira saioak. Bolariek hiru bider etorri beharko dute gure herrira. Lehenbizikoa bigarren jardunaldian parte hartzeko, apirilaren 9an, San Rokeko bolatokira, hain zuzen ere. San Pedroko bolatokiaren txanda ekainaren 4an iritsiko da, eta azkenik, txapelketari amaiera emanez, ekainaren 11n jokatuko dute San Migelgo bolatokian. Hain zuzen ere auzo honetako bolariak izan dira txapelketako dominatzaileak azken urteotan.

## San Lorentzo mendira irteera

In Leikek Ezcarayko San Lorentzo mendira irteera antolatu du. Asteburuko egonaldia izango da, apirilaren8tik 10era bitartean. Irteeraren zenbatekoa 48 euro da (bi gau, bi gosari eta larunbateko afaria barne), ikasle eta langabetuek, berriz, 40 euro. Bidaia autoz egingo da eta joan nahi dutenek dirua apirilaren 5a baino lehen sartu beharko dute in leikek Kutxan duen kontuan. Bilera informatiboa apirilaren 7an izango da, arratsaldeko 20:00etan, Azpilgoetako Abade etxean.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Haundi 5 – Bruno Villareal 0 (3. maila)

**ARETO FUTBOLA**

Muskiz 7 – Kenci Elg. 8 (Nazional B)

Lanbroa 3 – Oiartzun 9 (1. maila)

Toletxe 3 – Box Natura 16 (Jub.)

**PILOTA**

Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 - Andatzpe 15 (Nag. 2. maila)

Beloki 22 - Lagunak 12 (Kad. 2. maila)

**ESKUBALOIA**

Pneumax Sanlo 15 – Atxuri 20 (Jub. mut.)

Cometel Sanlo 25 – Bera Bera 25 (Jub. nesk.)

Pagoaga Sanlo 15 – Bera Bera 22 (kad. nesk.)

Sanlo 6 – Leizaran 17 (Inf. nesk.)

Donibane 19 – Sanlo 26 (Sen. mut.)

Urduliz 27 – Tecnifuelle 30 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA,** Mintxetan

Zapatua, 2

16:30 Haundi – Gernika (3. maila)

18:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

## [ IDARRAGA SARIAK ]

**IDARRAGA KAFEAK 8. SARIA**

**HAUNDI**ko jokalari erregularrena 04/05

| Jokalaria | Puntuak |
|---|---|
| 1. J. Arrasate | 36 |
| 2. J. Igartua | 29 |
| 3. Navarrete | 28 |
| 4. M. Elkoro | 23 |
| 5. A. Arenas | 22 |
| 6. David | 22 |
| 7. Javi Gomez | 20 |
| 8. Ibai Gonzalez | 18 |
| 9. Etxabe | 18 |
| 10. Loren | 17 |
| 11.- Mikel Calvo | 15 |
| 12. I. Oruesagasti | 12 |
| 13.- Iribar | 8 |
| 14. Guinea | 7 |
| 15. Urzelai | 5 |
| 16. Unai | 3 |
| 17. Mandiola | 2 |

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

**Langai** Euskal Lan Zerbitzua

- Arrasateko enpresak **gasolindegirako langilea** behar du. Erref. 162005002525
- Mutrikuko enpresak **saltokirako kutxazaina** behar du.. Erref. 162005000914
- Soraluzeko enpresak **inkestatzailea** behar du. Erref. 162005002746
- Azpeitiko enpresak **fabrikazio kimikoko langilea** behar du. Erref. 162005002783
- Azpeitiko enpresak **biltegirako langilea** behar du. Erref. 162005002781
- Azpeitiko enpresak **inkestatzailea** behar du. Erref. 162005002745
- Arrasateko enpresak **bi elektrikari** behar ditu. Erref. 162005002418
- Arrasateko enpresak **ingeles irakaslea** behar du. Erref. 162005002602
- Bergarako enpresak **begiralea** behar du. Erref. 162005002575
- Soraluzeko enpresak **mekanikoa** behar du. Erref. 162005002488

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ LANA ]

**ESKAERA**

Mutila lanerako prest. ☎ **610 61 20 43**

Portalak garbitzeko prest. ☎ **670 77 86 55**

Propaganda banatzeko prest gaude. ☎ **679 29 76 81 (Mari)**

17 urteko neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ **670 77 86 55 (Itsaso)**

Goi Mailako Administrari eta Komertziala den neska euskalduna enpresa batean lan egiteko prest. ☎ **943 74 27 78/616 20 36 88**

Garbitzen edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. ☎ **639 88 20 04**

Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 20 68 41**

Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **662 01 66 30**

Soldadorea eta 2. mailako ofiziala lanerako prest. ☎ **661 22 51 49**

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 75 22 52 (21:00-22:00)**

Bi emakume garbiketa lanak egiteko prest. Elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **943 03 35 43/646 91 70 48**

Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **690 70 11 18**

**ESKAINTZA**

Eibarko taberna baterako kamarero euskalduna behar da. ☎ **943 70 19 95 (Rakel)**

Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ **635 75 16 42**

Esperientziadun kamareroa behar da, neska edo mutila. ☎ **615 72 34 80**

Neska euskalduna eta esperientziaduna behar da altzari dendan lan egiteko. ☎ **943 70 18 85 (Amaia)**

Donostiako medikuntza estetika enpresa batek erizaina behar du. Gida baimenarekin. ☎ **902 181 969**

Sukalderako laguntzailea behar da. ☎ **943 12 12 62**

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

Etxea salgai Basarten. 75m$^2$ Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. ☎ **652 70 99 15**

Etxea salgai Mendaron. Herriko Enparantzan. Sukaldea, egongela, 2 komun, 3 logela, trasteroa. ☎ **676 81 46 97**

Etxea salgai Elgoibarren. Amueblatuta, berritua, igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. ☎ **645 73 20 90**

Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. ☎ **677 780 680**

Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ **615 77 99 20**

Apartamentua salgai Madalan. 46m$^2$. 3 urte. Egoera onean, oso polita. ☎ **943 53 11 02 (gauez)**

Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko. 3 logela, komuna, egongela, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ **943 74 02 68/699 17 98 72**

Etxea salgai erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **699 29 36 13**

Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m$^2$. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia, garajea. ☎ **687 23 58 39**

Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

Etxea salgai Ubitarten. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua, altzari eta ganbararekin. ☎ **652 71 67 24**

**ALOKAIRUA**

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **699 60 91 90**

Pertsona euskalduna behar da pisua osatzeko. ☎ **679 866 923**

Logelak alokatzen dira San Roken. Sukaldea erabilgarri. ☎ **943 74 88 53**

Logela alokatzen da. ☎ **943741881**

Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ **964 49 10 22**

Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ **964 49 10 22**

## [ GARAJEAK ]

Arregitorren garajea salgai. (10 zenbakia) ☎ **679 83 04 38**

Garaje itxia salgai Madalan. 28m$^2$. ☎ **646 50 28 66 (arratsaldez)**

Garajea alokatzen da karakolean. ☎ **943 74 17 14**

Garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 07 26 (21:00-22:00)**

Garaje itxia alokatzen da Mendaron. ☎ **666 620 362**

Garaje itxia alokatzen da Trenbide kaleko etxe berrietan. ☎ **943 74 01 77**

Garaje itxia alokatzen da. Berria. ☎ **943 74 02 68**

## [ LOKALAK ]

Lokala alokatzen da Altzolan. 166m$^2$ ☎ **943 19 19 52**

## [ PARTIKULARRAK ]

ESO 4. mailako klase partikularrak emango dituen norbait behar dut. ☎ **677 157 117**

Klase partikularrak ematen ditut. HH eta LH. ☎ **646 930 846**

Ekonomia Zientzietan lizentziatua behar da finantzazko klase partikularrak emateko. ☎ **943 74 40 31**

## [ SALEROSKETAK ]

2. eskuko piragua erosiko nuke ibaian eta itsasoan ibiltzeko. ☎ **696 09 33 79**

Silvercross kotxe kapota salgai. Ia berria. ☎ **943 74 01 94 / 606 019 719**

Arkoi itxurako izozkailua salgai. ☎ **943 53 18 39 (19:00-20:00)**

Pentium 3 ordenagailua salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ **658 71 08 73**

## [ BESTERIK ]

Hilaren 4an bufanda, eskularru eta txapela galdu nituen. Umeenak dira, lanazkoak. ☎ **943 74 09 87**

San Frantzisko kalean aliantza bat topatu nuen hilaren 7an. Izena eta data jartzen ditu. ☎ **626 16 20 05**


BARREN astekarian amatasun BAJA-ORDEZKOTZA BETETZEKO

**PUBLIZISTA BEHAR DA**

Eskatzen da:
- Harremanetarako dohainak
- Elgoibar edo inguruan bizitzea
- Informatika ezaupideak

Eskaintzen da:
- 5 hilabeteko egun osoko lan kontratua (ekainetik azarora)

Curriculumak jasotzeko azken eguna: apirilak 8
Informazio gehiago: 943 74 41 12 (Jasone)
BARREN astekaria, Nafarroa plaza, behea 20870 ELGOIBAR
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

# [ZORIONAK]



Zorionak **Endika** martxoaren 28an urte bat egin zenuelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Leire** martxoaren 26an 9 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Iosu** hilaren 25ean 12 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Ekaitzen partez.



Zorionak **Malena** hilaren 22an 3 urte egin zenituelako. Ion eta gurasoen partez.



Zorionak **Jon** martxoaren 30ean 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak **Julen** ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Hemen ospatuko dugu denok. Ikastolako laguntxoak.



Zorionak **Felix** zure lagunen partez.



Eskerrik asko gure martxoa alaitu duzuelako. Zorionak eta muxu handi-handi bana bioi.


karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Lazkano

Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7
Tel: 943 74 16 76

Lanbroa


Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera
Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ezenarro
Arotzeria
Jurdan Ezenarro
Linazasoro7, 2. (estazio parean)
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)
jurdaneze@hotmail.com

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehioak
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldeak

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



3 igandea DOÑA MERCEDES

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 1 | Bidasolo | Bidasolo |
| 2 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 3 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 4 | Fernandez | Fernandez |
| 5 | Yudego | Yudego |
| 6 | Zabaleta | Zabaleta |
| 7 | Etxeberria *(Errosario)* | Etxeberria |
| 8 | Ibañez | Ibañez |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 1 BARIXAKUA ]

**19:00 JAIOBERRIENTZAKO IGERIKETA IKASTAROAK**
Gurasoentzako bilera
Olaizaga Kiroldegian

**19:00 PINTURA ERAKUSKETA**
Egilea: Fernando Garcia Rubiá
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Apirilaren 17ra arte

**19:30 HITZALDIA**
Hizlariak: Joseba Egibar (EAJ) eta Unai Ziarreta (EA)
Kultur Etxean
Antolatzaile: EAJ eta EA

**20:30 ITXIALDIA**
Arrazoia: Batasunaren Ilegalizazioaren aurka
Zapatura arte (13:00)
Merkatu Plazako azken solairuan

**22:15 ANTZERKIA**
Antzezlana: "Soliloquio de grillos" (Estreinaldia Euskadin)
Taldea: Triclinium teatroa
Herriko Antzokian

SINOPSIA SINOPSIA SINOPSIA

## [ 2 ZAPATUA ]

**13:00 KONTZENTRAZIOA**
Leloa: Batasunaren ilegalizazioaren aurka
Nafarroa Plazan

**16:00 LEHEN LAGUNTZEN IKASTAROA**
Aubixa baserrian

## [ 3 DOMEKIA ]

**10:00 BIODANTZA IKASTAROA**
Aubixa baserrian (egun osoa)
Irakaslea: Raquel

**16:30 ANTZERKIA**
Antzezlana: "Galtzerdia" (6 urtetik gorakoentzat)
Taldea: Taun Taun Teatroa
Herriko Antzokian

## [ 7 EGUENA ]

**19:30 MAHAINGURUA**
"Vaya Semanita" saioko Gorka Otxoa, Nerea Garmendia eta Iñigo Agirre
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: BARREN

## [ 8 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA LEHEN SAIOA**
2 eta 6 urte bitarteko haurrei eta hauen gurasoei zuzendua
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra



## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN
**«Largo domingo de noviazgo»**
2, zapatua: 19:30-22:15
3, domekia: 19:30-22:15
4, astelehena: 22:15
**«Hitch (Especialista en ligues)»**
8, barixakua: 16:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«Entre copas»**
1, barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 17:00-19:30-22:30
3, domekia: 17:00-19:30-22:30,
4, astelehena: 19:30-22:15
5, martitzena: 19:30-22:15
6, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«El escondite»**
1, barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 17:00-19:30-22:30
3, domekia: 17:00-19:30-22:30,
4, astelehena: 19:30-22:15
5, martitzena: 19:30-22:15
6, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Largo domingo de noviazgo»



Zuzendaria: Jean-Pierre Jeunet.
Antzezleak: Audrey Tautou, Gaspard Ulliel, Jean-Pierre Becker.

Lehen Mundu Gerra amaitzear dagoela emakume frantziar batentzat bere bizitzako borrokarik latzena hastear dago. Mathildek (Audrey Tautou) bere mutilaguna ejerzito alemaniarra eta frantziarraren tartean, inoren lurrean dagoela jakin du, bizia galtzeko arriskuan dagoenez izugarrizko bidaiari ekingo dio mutilagunaren patua zein izan den jakin nahian. Amelie filme arrakastatsuaren protagonista eta zuzendari bera ditu filmak, baina istorioa oso bestelakoa da oraingoan.

# Atzera begira



**1935**. urte inguruko erretratu zahar hau **Mari Jose San Millanek** laga digu. Argazkian ageri direnak Egaña familiako kideak dira. Herrian oso ezagunak izan ziren. Konrado Egaña, EAJ alderdiko idazkaria, eta Zarauzko Batzokiko sortzaileetako bat izan zen. Hemen daukagun argazkia, beraien etxe ondoan aterata dago. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak.

Zutik, ezkerretik eskumara: **Maritxu Egaña (†), Pako Egaña (†), Antontxu Egaña (†) (Jesuita izandakoa) eta Concepcion Egaña (†).**

Eserita, ezkerretik eskumara: **Jesus Egaña (†), Francisca Eizmendi (†), Niko Egaña, Konrado Egaña (†) eta Margarita Egaña.**



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 23an hil zen
*Benita Agirre Larrañaga*ren
seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## I. URTEURRENA

2004ko martxoaren 27an, 38 urte zituela hil zen
*Manu Alvarez Balzola*ren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da,
larunbatean, apirilak 2, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador Santa Klara




NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA
✆ **943 852 411 - 943 317 511**

- *3 logelako etxebizitzak eta 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin*
- *Terraza eta loratei handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.*



# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

ANTZERKIA

Euskadin estreinaldia

TRICLINIUM teatro PRESENTA:

# Soliloquio de Grillos



Antzezlan honetan lotura duten
bi istorio ezberdin kontatzen zaizkigu.
Alde batetik beraien artean zeharo ezberdinak
diren hiru emakume bide bazter batean
elkartzen dira gau ilun batean ihesi ibili ondoren.
Bestetik hil ondoren hiru emakume hauek,
bizitza beraien begien aurretik
nola pasatzen den ikusten dute.



Aktoreak:
Ana Trinidad
Paqui Gallardo



**Apirilak 1, ostirala**
**22:15ean**
**Herriko Antzokian.**

KULTURA SAILA

FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA

SAREA

# galtzerdia
## taun taun teatroa

Pliniok postetxean eskutitzak eta paketeak
sailkatzen ematen zituen egunak.
Goiz batean... hara! Kartazalean bere izena
azaltzen zuen gutuna aurkitu zuen.
Bera ederki ezagutzen zuen norbaitena,
berarekin luzaroan bizi izandakoa...
Augusto!
Augusto ote?
Berriekin?
Zein berri?



(6 urtetik gorakoentzat)

**Apirilak 3, igandea**
**16:30ean**
**Herriko Antzokian**